

## Betibizi loreak Oroimenaren Egunean

Asteazkenean, hilaren 10ean, Memoriaren Eguna ospatu zen erakunde ezberdinetan. Foru Aldundiek, Eusko Jaurlaritzak eta EUDELeK adostutako testua irakurri zen erakunde hauetan egin ziren ekitaldian. Dena den, tokiaren arabera zentzu ezberdina hartu zuten omenaldiek. Instituzio batzuetan indarkeriak eragindako biktima guztiak oroitu ziren, eta beste kasu batzuetan bakarrik ETAk eragindakoak. Lasarte-Oriaren kasuan, aipatu ziren biktima bakarrak ETAk eragindakoak izan ziren.

Goizeko 11:30etan hasi zen ekitaldian PSE-EEko 8 zinegotziak, LOHP, PP eta EAJko zinegotzi bat izan ziren.

EB-Berdeak proposamenaren alde bozkatu zuen arren, zinegotziak ez zuen ekitaldian parte hartu. Ezker Aertzalekoek testuaren aurkako jarrera adierazi zuten bozke-

tan eta ez ziren, noski, ekitaldian egon.

### Proposamena

Irailaren 9an burutu zen batzarrean eztabaidatu eta onartu zen proposamenaren arabera, Euskadiko erakunde guztiak, terrorismoak eragindako biktima guztiak, oroitu zituen, salbuespenik gabe, azaroaren 10ean.

Udal batzar hartan onartu zen testuan aipatzen zen, gaur egun beldurra sortarazten duen talde armatu bakarra ETA bada ere, beste taldeek eragindakoak ere errekonozimendu berdina merezi dutela. Iraganeko kontuak badira ere, ahazteko ez direla adierazten zen Foru Aldundiek, Eusko Jaurlaritzak eta EUDELeK adostutako testuan.

### Biktimak presente

Lasarte-Oriako Udaletxean burutu zen ekitaldian indarkeriaren biktimen senideek ere



50 pertsona inguru bildu ziren Lasarte-Oriako Udaletxeko aterpean terrorismoak sortarazitako biktimak oroitzeko

parte hartu zuten: Kati Romero, Alfonso Morcilloaren alargunak, eta Jesusa Ibarrola, Begoña Urrozen amak.

Testu irakurketaren ondoren, udaletxearen atarian dagoen biktimak oroitzeko plakan betilore-sorta bat jarri

zen. Lore eskaintzaren ondoren 15 minutuko isilunearekin eman zitzaion amaiera 12:00etan ekitaldiari. •

## Bulgaria ezagutzen

Diaporamen bigarren saioa izan genuen asteartean, hilaren 10ean Jalgin. Bertan, Naike Zumeta ikasleak Bulgariaren Erasmus egitasmoari esker bizitako esperientziei buruz hitz egin zuen.

Bertako kultur adierazpenen erreposoa egitearekin batera hainbat bitxikeri aipatu eta laburki baina zehatz Bulgariari buruzko mapa irudikatu eta azaldu zuen Naikek. Jalgiko diaporama emanaldian bildu zirenek euren jakinmina asetzeko aukera izan zuten Naikeraren esperientziak entzun eta gero, galderen txanda iritsi zenean. •



Bulgarian pasa zituen hilabeteetan ikusitakoak azaldu zituen Naike Zumetak Jalgin asteazkenean.

### ALBISTEA/3

2011ko zerga eta tasak onartu ziren atzoko Udal Batzarrean

### ALBISTEA/4

Agustin Mujika, Takolok, jasoko du Ttakun Saria azaroaren 27an

### KIROLA/6

Albizuri Handi harria bost aldiz altxatu zuen Urtzi Telleriak igandean

# SUGATE SUKALDEAK

- Gremioen koordinazioa
- Ordenadore bidezko diseinua
- Konpromisorik gabeko aurrekontuak
- Horma- armairuak
- Marka guztietako etxetresna elektrikoak



Pintore Kalea 5 • Tel./Faxa: 943 361471  
Lasarte-Oria  
www.sugate.net

**Neure kabuz**



Herriarentzat... baina herriarekin kontatu gabe?

Kultur etxeko programazioaz ari naiz. Antzerki eta dantza programazioaz zehazki, nahiz eta beste esparruetan gogoeta antzekoa izan.

Astelehen honetako Txintxarri postontzitik hartu eta larunbatean Nats Nus dantza garaikideko taldeak eskainitako emanaldiaren berri ematen da lehenengo orrialdean: "Herriko heldu zein haurrek ederki gozatu zuten...". Ondo, herriko heldu zein haurrek... bai, baina, zenbat? Ejem, 20 edo esan didate niri, 30 agian. Berdin zait. Gutxi, jende gutxi. Lan ona egin zuten. Baina jende gutxi. Eta kontuz, ez naiz ni ekitaldi baten arrakasta ikusle edota txalo kopuruen arabera neurtzen duen horietakoa, e! Ezta gutxiagorik ere. Badaude parametro egokiagoak. Utzitako arrastoa, adibidez.

Kontua da ehunka "heldu zein haur" ari direla dantza garaikidea egiten Lasarten, teoriar horrelako emanaldien onuradun zuzenak direnak; badago, gainera, lan hori aurrera eramaten duen talde bat... Bada, inor ez da horiekin harremanetan jarri ez programazioaz hitz egiteko ez, behin programazioa eginda, horiek erakartzeko. Nats Nus-ekoak, martiztarrek balira bezala, etorri, berea ondo egin eta agur. Diru bat gastatu da eta utzitako arrastoa hutsaren hurrengoa da.

Galdere da, zer da programatzea? Emanaldiak ematea? Hori bakarrik? Ze irizpideekin? Zaleak sortze aldera, arrasto utzi aldera, mila gauza egin daitezke emanaldi baten bueltan. Zergatik ez da bilatzen herriko taldeen lankidetzat?

**Pablo Barrio**

**Zorion-agurrak**



**Edorta**

Zorionak zuri! Zorionak beti!... Ederki ospatuko dugu asteburuan!



**Amaiur**

Zorionak eta muxu handiena etxeko txiki-nari. Aitaxo eta amatoxoren partetik.



**Danel**

Zorionak txapeldun! Hamaika muxu handi etxekoekin partetik.



**Borja**

Zorionak eta oso ondo pasa! Muxu handi bat Sandra eta Patriziaren partez.



**Ane**

Zorionak zure 10. urtebetetzean. Muxu handiak familiaren partetik.



**Garazi**

Zorionak zure zortzigarren urtemugan. Familiaren partetik ondo pasa!

**Hiribusaren ordutegia**

	Antxusu	Zabaleta	Atsokabar	Cocheras
	7:45	7:55	8:00	8:05
	8:15	8:25	8:30	8:35
	8:45	8:55	9:00	9:05
	9:15	9:25	9:30	9:35
	9:45	9:55	10:00	10:05
	10:15	10:25	10:30	10:35
	10:45	10:55	11:00	11:05
	11:15	11:25	11:30	11:35
	12:15	12:25	12:30	12:35
	12:45	12:55	13:00	13:05
	13:15	13:25	13:30	13:35
	13:45	13:55	14:00	14:05
	14:15	14:25	14:30	14:35
	14:45	14:55	15:00	15:05
	15:15	15:25	15:30	15:35
	16:15	16:25	16:30	16:35
	16:45	16:55	17:00	17:05
	17:15	17:25	17:30	17:35
	17:45	17:55	18:00	18:05
	18:15	18:25	18:30	18:35
	18:45	18:55	19:00	19:05
	19:15	19:25	19:30	19:35
	19:45	19:55	20:00	20:05
	20:15	20:25	20:30	20:35

**tsst**  
943.361.741  
www.tsst.info



LANEGUNAK

**Jaiotzak**

- Aratz Vecilla Telleria, azaroaren 4ean
- Oihane Flores Turcio, urriaren 31 ean
- Eder Albizu Garcia, urriaren 29an

**Heriotzak**

- Rafael Castro Martinez, azaroaren 81 urte zituela

**Azoka txikia**

Harremanetarako: 629 482 335.

**Eskaintza inmobiliarioak**

- Etxea errentan eman nahi da Lasarte-Orian, 80 metro karratu ditu eta eguzkitsua da. Harremanetarako: 628 904 130.

- Atsokabarren garaje plaza bat alokatzen dut. Tamaina handikoa, kotxe familiarra edo furgonetarako aproposa. Harremanetarako zenbakia, 943 376 115.

**Salerosketak**

- Fronteniseko 2 raketa berriak saltzen ditut 15 eurotan biak. 647254082 Jose Manuel

**Lan-eskaintzak**

- Emakume euskalduna behar dugu adineko pertsona bat zaintzeko, astean zehar arratsalde bat eta larunbata eta igande gauetarako. Harremanetarako: 610 953 258, Pili, 13:00etatik 15:00etara deitu.

- Ile-apaintzailea behar da Lasarte-Oriako ileapaindegi batean.

**Lan-eskariak**

- Andre euskalduna eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko. Telefonoa: 618 097 676.

- Lasarte-Oriako neska gaztea eskeintzen da kurtsuan zehar lana egiteko, umeak zaintzen edo klaseak ematen. Harremanetarako telefonoa, 677 823 141.

- Neska arduratsua eta esperientzia duena eskaintzen da haurrak zein nagusiak zaintzeko. Etxeko garbiketa ere egiteko prest. Telefonoa: 697 946 546.

- Mutil gazte bat eskaintzen da eraikuntzan, garbiketa edo baserri batean lan egiteko. Harremanetarako zenbakia, 677 593 772.

- Azterketak datozelako errefortzuko klaseak ematen ditugu. Talde txikietan edo partikularrak, euskaraz edo erderaz. LH eta DBH-n dauden ikasleentzako!! Kale Nagusia . 667 972 471 (Jon); 670 219 022 ( Lorena).

**Oharrak jartzeko:**

txintxarri@txintxarri.info • www.txintxarri.iragarkilaburrak.com  
www.txintxarri.info • Geltoki kalea 4 • Tel.: 943 366858

**Guardiak**


- Astelehena, 15**  
Rodriguez, Kale Nagusia 42 etzea  
Tel.: 943 361774
- Ostirala, 12**  
De Miguel, Kale Nagusia 32  
Tel.: 943 371151
- Larunbata, 13**  
Acha-Orbea, Hipodromo et. 6  
Tel.: 943 363549
- Igandea, 14**  
Acha-Orbea, Hipodromo et. 6  
Tel.: 943 363549
- Asteartea, 16**  
Gil, Kale Nagusia 24  
Tel.: 943 361529
- Asteazkena, 17**  
Acha-Orbea, Hipodromo et. 6  
Tel.: 943 363549
- Osteguna, 18**  
Urbisondo, San Frantzisko 1  
Tel.: 943 366567

**GAUEKOA: 22:00-09:00, egunero**  
Chuda, Kardaberaz 48 Hernani, Tel.: 943 551793

**Telefonoak**

- Osasuna / Larrialdiak**
- Osasun Zentroa ... 943 007960
- DYA ... 943 464622
- Gurutze Gorria ... 943 363953
- Udalzainak ... 943 362442
- Ertzaintza ... 943 288888
- SOS Deiak ... 112
- Udala**
- Erregistroa ... 943 376055
- Euskarako Zerbitzua 943 376184
- Kiroldegia ... 943376182
- Kulturetxea ... 943376181
- Zerbitzu Sozialak ... 943376179
- KIUB ... 943361605
- Udal euskaltegia ... 943361621

**Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak**



**Lasarte-Oriako Udala**  
**Euskarako Batzordea**



GFAko Kultura eta Euskara Departamendua



**EUSKO JAURLARITZA**  
**KULTURA SAILA**

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com. Txintxarriak ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

# 2011ko zergak onartu ditu Udalak

Ehuneko 2,3 igoko dira udal zergak. Tasak, aldiz, estalduraren arabera mantendu edo igoko dira

**D**atorren urteko udal zerga eta tasen onarpena izan zen atzo Udalteko Batzar aretoan burutu zen Lasarte-Oriako Udal Batzarraren bilkuran erabaki azpimarragarriena. Batzar luzea izan zen hainbat gai jorratu baitziren.

PSE-EE, H1!, EAJ eta LOHP alderdien aldeko botoek ahalbideratu zuten 2011 urterako ordenantzen aldaketen espedientearen onspena. Ezker abertzaleak aurka bozkatu zuten eta PP eta EB abstenu egin ziren.

PPko bozeramailearen ustez, gaur egungo egoera ekonomikoa dela eta, ordenantzen proposamena zerga eta tasen mantentzea edo jaitziera izan beharko luke.

Era honetara, 2011an herritarrek ordaindu behar dituzten zergak KPlaren arabera igoko dira, hau da, %2,3 eta zerbitzuen tasak estalduraren arabera mantendu edo igoko dira. Uraren tasa, esate baterako, mantendu egingo da.

## Emendakinak

Ordenantza osoen bozka baino lehen, Udal batzarrak hogei bat emendakin partzial eztabaidatu zituen eta horietako bat ere ez zen onartu.

Hala ere, Lasarte-Oriako alkateak Jesus Zaballosek prentsari azaldu dionez, Ekonomia, Ogasuna, Ondarea eta



Ordenantzen aldaketen puntuan hogei bat emendakin eztabaidatu zituen Batzarrak eta horiek guztiak atzera bota ziren.

Kontu Bereziako batzordean oposizioko alderdien hainbat emendakin onartu ziren aurkeztu ziren 36etatik, eta ordenantzen barne egongo dira.

## Zaborra

Honela, zaborra %10a igoko da. PSE-EEK eta EAJk tasa honen igoera eskatu zuten. Gobernuan dagoen taldeak %6a eta alderdi jeltzaleak %10. "Azkenean, %10 onetsi genuen. 2009ko estaldura %66koa zen eta aurten arazoa izan dugu San Markorekin, beraz estaldura hori berreskuratzeko tasa igo behar izan dugu," azaldu zuten alkateak.

Puntu honetan oso kritikoa agertu ziren bai Ezker Abertzale-

lea baita Ezker Batua ere ordenantzen bozka azalpenean. Ezker Abertzaleari deigarri egin zitzaion Gobernu taldeak eta EAJk aurkeztutako bi proposamenak jakinda, Batzarrak igoera handiena onestea. Ehuneko horrekin herria mehatxupean duen munstroa, hau da, errauskailua eraikitzeke erabiliko den edo ez galdetu zuten.

Ezker Batuak tasa igoera hori azterketarik egin gabe egitela salatzen zuten eta Gobernu taldearen proposamena ez denean, gainera. "Tasa honen igoera, Mankomunitatean emango diren koste igoerekin zer ikusia du," aipatu zuten Rikardo Ortegak. Era berean,

Gipuzkoako Partzuergoaren tarifa Lasarte-Orian ezarri dela eta hau errauskailuaren eraikuntzan erabiliko dela azpimarratu zuten.

EBko zinegotziak, hondakinen legearen arabera herrian hondakin organikoa bildu beharko litzakeela gogoratu zuten eta herriko PSE-Eeri nahiz eta Zubietan errauskailurik ez pankarta jarria izan arren, horren aurkako ekimenik edo pausurik egin ez izana leporatu zuten.

## Beste aldaketak

Bestalde, EB alderdiari esker, igogailuen lizentziaren %90aren onuradun izango dira, lizentzia eskatzen den

etxebizitzan minusbaliotasuna duen bizikiderik badago, baita 70 urte baino gehiago dituen pertsona bat badago ere.

Era berean, LOHP eta PSE-EEK bat egin zuten, familiari dagozkion bi puntuetan. Bate-tik, hobaria izango dute bi edo hiru seme-alaba haur eskolan, jangelan edo musika eskolan matrikulatuta dituzten familiak. "Orain arte, zerbitzu hauetako batean bi edo hiru seme-alaba zituzten familiak ziren onuradunak. Hurrengo urtean, horietako edozeinetan bi edo hiru seme-alaba dituztenak izango dira" aipatu zuten Zaballosek.

Bestetik, familia ugariak %30 beherapena izango dute haur eskola eta jangelako tasan.

Honetaz gain, LOHP eta EBren bi emendakin bateratu zirela adierazi zuten alkateak eta alderdi guztien onspena izan dutela.

"Honi esker, langabetuak %10ren beherapena izango dute Gazte txartelak eragina duen zerbitzu beretan. Horren kudeaketa nola egin aztertu behar dugu eta Lanbiderekin hitz egin behar dugu langabetuei zein txartela emango dien jakiteko. Hori guztia izatean, txartel hori eta NAN aurkeztuz baliatuko dira beherapenaz," azpimarratu zuten. •

## Danak Kideko formazio iraunkorra martxan da

**D**anak Kide 2010-2011ko Formazio iraunkorreko ikastaroak habian jarri ziren astear-tean. Aurtengoa formakuntza iraunkorreko zortzigarren edizioa izango dugu, 2002 urteko urrian inauguratu zen Esperientziaren eskolaren adarra.

## Mugabe

Danak Kide *Mugabe* entitatearen barruan dago kokatuta, giza eskuhartzearen sustapenerako asoziazioa hain zuzen ere.

Mugabe beste Esperientzia Eskoletatik irteerako proiektua izan zen, eta baita Matia Fundazioak bultzatutakoa ere bai.

Helburu zehatza dauka

pertsona helduen ahalmen indibidualak garatzen dituzten iniziatibak sustatzen. Honekin bizi kalitate handiena eskuratzea, gipuzkoar gizarte ikasi, trebeena eta solidarioena bihurtzea helburuarekin.

## Instituzionalizatu

Danak kide proiektu honen barruan baneratu zen eta esan daiteke gaur egun Formazio iraunkor honi esker instituzionalizatu egin dela.

Gainera, kurtsoa osatzen duten oso bestelako ikasgaietan sakontzeaz gain eta Giza ikasketen barruan markoztatzen da, beti ere kontuan hartuz osasuna eta erlazio sozialak hobetzera bideratzen dauden beste ikastaroak.



Jende ugari hilaren 9an Danak Kideko lokalean bildu zena formazio iraunkorreko ikastaroetan parte hartzeko

Hauen barnean, elkar-bizitza eta lagun kuadrila, honек lortu dituen adiskidetasun lokarriak. 200 ikasle baino gehiagok, erretiratu aktiboak, gizonak zein emakumezkoak

osatzen dute.

Errealitate bat, pertsonen arteko sentimenduan sustraitua eta fundamentu eta arrazoiaren ikuspen eguneratua ematen diena.

Mundua eta bizitzari buruzko gauzei buruzkoak hobeto bideratzen laguntzen zaie Danak Kide bultzatutako ikastaro edo akzio hauen bidez. •

# Agus Mujika omenduko du Ttakunek

Ttakun sariak ekimena azaroaren 27an, 20:30etik aurrera egingo da Goiegi jatetxean

Euskal kulturaren alde lan egin duten pertsonak omenetzen ditu Ttakun Sariak. Iaz Jon Lasa musikaria izan zen sariduna; aurten, Agus Mujika, Takolo, besteak beste, gure herrian lau urtetan behin egiten den Euskararen Maratoiko sortzailean omenduko du Ttakun elkarrekin. Saria, azaroaren 27an, Goiegi jatetxean egingo den afariaren ondoren emango zaio. Hurbiltzen direnek omenaldiaz gain, ikuskizun paregabe bezala gozatzeko aukera izango dute.

## TXINTXARRI

**T**takun elkarrekin, bigarren urtez, Ttakun Sariak ekimena antolatu du, azaroaren 27an: afaria, omenaldia, ... eta ikuskizuna ere ez da faltako Goiegi jatetxean egingo den ekitaldian.

Sari hau emateko ideia aspaldian zegoen elkarrekin asmoetan eta iaz forma hartu zuen lehenengoz.

Helburua, euskara edo euskal kulturaren munduan zerbait berezia egin dutenei errekonozimendua adieraztea da.

"Euskal kulturaren aldeko lan ixila egin duten jendeari omenaldia egin nahi diegu," azpimarratu dute Ttakun sariaren antolatzaileek.

Horregatik, hasiera berezia izateko iaz, Jon Lasa musikaria izan zen omendua.

## Ttakunkidetza

Honetaz gain, Ttakun Sariak ekimena elkarteko bazkideekin urtean behin zita egiteko aitzaki aparta bilakatu da.

Garai batean, afariaren bat egiten zuten, noizean behin bazkideek elkarren berri izateko. Egun, ez dira hainbeste egiten, eta zita hori berreskuratzeko nahiarekin "eta Ttakun-

kide izatearen errealizazio hori berreskuratzeko otu zitzaigun ideia" adierazi dute antolatzaileek.

Duela bi urte Euskararen Maratoia ospatu zen herrian, eta herritar orok izan zuen aukera gutxienez 40 ordu euskaraz bizitzeko.

Baina, Maratoia lau urtez behin ospatzen denez, tarte horretan, berriro biltzeko zita antolatzea eta jendeari maratoi txikiak egin behar direla gogoratzea da asmoa.

## Maratoiaren aita saritua

Ttakunzaleen afaria egiteko helburuarekin batera, euskararen munduan urtetan zehar zerbait espeziala egin duen pertsona omendu eta nabarmenduko da.

Eta arestian Euskararen maratoia aipatu dugunez, aurtengo saritua jaialdi horren sorreran zerikusi handia duen pertsona dela aurreratu dute, Agus Mujika, Takolo, hain zuzen ere.

"Ttakun sortu baino lehen euskararen alde lan asko egin zuen Agusek. Maratoiaren aita da eta honetan ia edizio guztietan parte hartu du. Lasarte-Oriako euskara taldearen bultzatzaileetarikoa bat



Agus Mujika, Takolo, Euskararen Maratoiko sortzaileetarikoa bat dugu eta ia edizio guztietan egingo den omenaldia irabazteko.

da, herriko pailazoaren sortzaile, baita euskal girotze barne-egien sustatzaileetarikoa bat ere" azaldu digute Ttakun sariaren antolatzaileek.

## Lasarte-Oriako estiloa

Lasarte-Oriako badu gauzak asko gustatzen zaien horietakoak. Maratoian sortzen den afal osteko giroa sortzea dugu asmoa eta lortuko dugula uste dugu" diote Ttakuneko arduradunek.

"Herrian artista asko dago, lotsagabe asko, baita oholta asko gustatzen zaien horietakoak. Maratoian sortzen den afal osteko giroa sortzea dugu asmoa eta lortuko dugula uste dugu" diote Ttakuneko arduradunek.

## Jaialdia

Lehenengo edizioa, Txitar-din Beltza jatetxean egin bazen ere, aurten Goiegi jatetxean izango da hitzordua, azaroaren 27an, 20:30etik aurrera.

Afari paregabea dastatu eta gero, omenaldia egingo du Ttakun kultur elkarrekin.

Ostean, show paregabea ikusiko dute jatetxera hurbildutakoek eta nola ez, gauzak ezin hobeto amaitzeko, aurtengo karaokea izango da guztietatik.

Aukera ederra dute Lasarte-Oriako herritarrek, Ttakuneko bazkide direnek eta ez dire-

nek, denak elkarrekin, euskaraz ondo pasatzeko eta euskal kulturak eskaintzen dituen aukeretatik disfrutatzen.

## Txartelak

Sari berezi hauetako afarirako txartela eskuratu nahi dutenek, Ttakun elkarteko egoitzara, Geltoki kaleko 4 zenbakira hurbildu behar dira.

Helduentzako menua 30 eurotan eta 16 urte artekoena, 17 eurotan eskuragarri izango dira.

Sarrerak jada salgai daude bezar Ttakunen bulegoan. Erosteko epea azaroaren 24ra arte izango dute irekita. •

## Leitzaran bailarako iragana ezagutzen

**O**inatz taldearen eskutik eta Burdina taldearen laguntzaz 20 bat herritarrek lehengo larunbatean Leitzaran bailarako iragan industriala ezagutu zuten.

"Egun leku idilikoa den arren, ez da beti horrela izan. Leitzaran bailara Nafarroako eta Gipuzkoako muga izanik mugimendu handiko bailara izan da. Plazalako trenbidea zegoen bertan eta meatzak zeuden burdin harrira ustiatzeko," azaldu digu Oinatzeko kide batek.

## Aztarnak ezagutu

Burdina taldearen lanak iragan industrial horretako aztarnak agerian utzi ditu eta horiek ezagutu zituzten larunbatean: XVI. mendiko zubia, Gipuzkoa eta Nafarroaren arteko mugarra, meatzak eta honetaz gain, Plazaola trenbidearen sorrerari buruz jakin zuten paisai zoragarri horretan barrena.

"Harrigarria da hori Leitzaranen egotea. Hain gertu bizi gara eta hain gutxi ezagutzen ditugu gure inguruak," adierazi digu bisitarietako batek. •



Leitzaran bailaran dauden iragan industrialeko aztarnak, hala nola, meatzak eta hauen labeak, ikusi zituzten Oinatzeko lagunek.



**aterpea**  
lasarte/oria



"**URRATU ETA IRABAZI**"  
**BOLETOEKIN**  
**SARIAK IRABAZTEKO**  
**AUKERA DAUKAZU**

**EROSI ATERPEAN!**



Geltoki 2 • LASARTE-ORIA  
Idiazabal kalea 32 • URNIETA  
Tel.: 943 365846



Juan XXIII., 10 • LASARTE-ORIA  
Tel.: 943 362353  
www.merceriaaritzia.com



Kale Nagusia 39 • LASARTE-ORIA  
Tel.: 943 361080 • Tel./Faxa: 943 372521



Uzturre plaza 2, behe • Tel./Faxa: 943 360591  
LASARTE-ORIA

Maite **B**ETELU

- ☑ Gestoria
- ☑ Aholkularitza
- ☑ Inmobiliariako zerbitzuak
- ☑ Aseguruen administrazioa
- ☑ Etxebizitzen administrazioa

Aralar plaza 4 eta 6, behe • LASARTE-ORIA  
Tel.: 943 364886 • Faxa: 943 372117

**Bideo Lagunak**



Donostia Etorbidea 2 • Lasarte-Oria  
Tel.: 943 373134  
jose@bideolagunak.com  
www.bideolagunak.com



BEROGAILUEN INSTALAZIOA  
OSASUN APARATUAK ETA  
INSTALAZIO INDUSTRIALAK

Kale Nagusia 73 • Lasarte-Oria  
Tel. eta Faxe : 943 364599  
www.fontaneriabiyoona.com  
pili@fontaneriabiyoona.com



Pablo Mutiozabal, 2  
20160 Lasarte Oria  
Tel./Faxa: 943 36 62 28  
www.ekain.net



Kale Nagusia 42, behe  
LASARTE-ORIA  
Tel.: 943 362659



**Goxogi**

Geltoki kalea, 6  
Telefona : 37 08 48  
LASARTE-ORIA



Nagusia 34  
20160 Lasarte-Oria  
Tel.: 943 365626



Geltoki kalea 19 • Tel.: 943 371384  
Juan XXIII.a plaza, z/g • Tel.: 943 364945  
www.izarrabitxitegia.com



Pintore Kalea 1 behe  
Tel.: 943 369679



Kale Nagusia 39 • LASARTE-ORIA  
Tel.: 943 372668 Faxa: 943 370737  
patxilarranaga@telefonica.net  
www.patxilarranaga.com



Hipodromo etorbidea 8  
(Anbulatorio zaharraren aurrean)  
Tel.: 943 366482  
LASARTE-ORIA



Uistin 4  
20.160 Lasarte-Oria  
Tlf. Fax. : 943 37 08 46  
652 77 11 01



Loidi Kalea, 4  
20160 Lasarte-Oria  
Tel.: 943 366 471



Hipodromo etorbidea 8  
LASARTE-ORIA  
Tel.: 943 363665



Nagusia 21 • Lasarte-Oria  
Tel.: 943 361403



Hipodromo etorbidea 8 • Lasarte-Oria  
Tel.: 943 361885  
Kale Nagusia 41 • Lasarte-Oria  
Tel.: 943 363912



Nagusia 46  
20160 Lasarte-Oria  
Tel.: 943 370950



Nagusia 33 • Tel.: 943 361535



Geltoki kalea 13 • Lasarte-Oria 20160  
Tel.: 943 370048



Nagusia 35 • Lasarte-Oria  
Tel.: 943 361195



Zirkuitu ibilbidea 10  
(gasolindegia atzetan)  
Tel.: 943 362457 • LASARTE-ORIA



Nagusia Kalea 46 behe  
20160 Lasarte Oria  
Tel.: 943 371386



Juan XXIII plaza 2 behe  
Tel.: 943 364647



Ola kalea, 10 San Bartolome, 22  
Lasarte-Oria 20160 Elgoibar 20870  
www.dentalaldaz.com



Kale Nagusia 42  
Tel.: 943 362979

Kiroletako agenda

**FUTBOLA**

**Larunbata 13**

10:00etan, Ostadar - Intxurre (I. Kadetea) Michelinen.

11:30etan, Ostadar - Añorga (Infantilen Ohorezko Maila) Michelinen.

13:00etan, Ostadar - Urnieta (I. Jubenila) Michelinen.

15:30etan, Ostadar - Mariño (Jubenilen Ohorezko Maila) Michelinen.

17:15etan, Texas Lasartearra - Danena (I. Erregionala) Michelinen.

**10:30etan, Sto. Tomas Lizeoa - Ostadar (Emakumezkoen KDT F-11) Berio, Donostian.**

11:30etan, Usurbil - Ostadar (Partehartze infantilak) Harane, Usurbilen.

**Igandea 14**

10:00etan, Ostadar - Lagun Onak (Infantil Txikiak, kopa) Michelinen.

11:30etan, Ostadar - Sto. Tomas Lizeoa (Erregional Goren) Michelinen.

**10:00etan, Ostadar - Beasain (Alebinak) Argixao, Zumarragan.**

10:30etan, Astigarragako Mundarro - Ostadar (Kadeteen Ohorezko Maila) Zubieta, Donostian.

12:00etan, Añorga - Ostadar (I. Erregionala) Rezola, Añorgan.

**ARETO-FUTBOLA**

**Ostirala 12**

**HERRIKO TXAPELKETA**  
Kirol guneko kantxan  
20:30etan, Izarra - Naiban

**Larunbata 13**

17:45etan, ISU Leihoak - Denak Gazte Taberna (Gipuzkoako Liga, I. maila) Kiroldegian.

**HERRIKO TXAPELKETA**

**Kirol guneko kantxan**

09:15etan, Epel - Oria kristaldegia

10:15etan, Katakas - ISU Leihoak

11:15etan, Ayete - Obelix

12:15etan, Buenetxea - Ilargi

13:15etan, Kalaberri Z - Viña del Mar

15:00etan, Indaux - Morrison's

16:00etan, Lekuona Mena - Illun

16:15etan, San Jorge Santurtzi - Aldatz H.K. (Nazional B maila) Santurtziko udal kiroldegian.

**Igandea 14**

**HERRIKO TXAPELKETA**  
Kirol guneko kantxan  
10:00etan, Izkiña - Semblante Andaluz  
11:00etan, Ainhoa - IOB H.K.

**PILOTA**

**Ostirala 12**

19:00etan, Euskal Jolas 2 - Intza (Eskuz binaka III. Kadetea) Deban.

20:15etan, Urnieta 4 - Intza (Gipuzkoako txapelketa, Eskuz bana-ka alebina) Urnietan.

**Larunbata 13**

16:15etan, Intza 1 - Hernani 2 (Gipuzkoako txapelketa, Eskuz bana-ka infantila) Michelinen.

16:15etan, Intza 2 - Alde Zaharra (Gipuzkoako txapelketa, Eskuz bana-ka infantila) Michelinen.

**SASKIBALOIA**

**Larunbata 13**

9:30etan, Eskola kiroleko Saskibaloitopaketa dute LH4. mailako benjaminen, Kiroldegian.

10:45etan, Eskola kiroleko Saskibaloitopaketa dute LH3. mailako benjaminen, Kiroldegian.

**ATLETISMOA**

**Larunbata 13**

10:30etan, Landaberriko gazte txoket Pistako Eskolarteko txapelketako jardunaldia dute, Hernaniko atletismo pistan.

**Igandea 14**

11:00etan, Behobia-Donostia lasterketan parte hartuko dute hainbat herritarrek.

**JUDO**

**Larunbata 13**

10:30etan, LOKEko infantilak Amurrioko Hiria sarian parte hartuko dute, Bañueta Kiroldegia, Amurrian.

14:30etan, LOKEko infantilak eta alebinak Eibarreko sarian parte hartuko dute, Eibarren.

**TXIRRINDULARITZA**

**Igandea 14**

10:00etan, Bazpi txirrindularitza eskolako gazteak pistako Neguko Sariko 2. jardunaldian parte hartuko dute, Anoetako belodromoan, Donostian.

Kiroletako oharrak

**Behobia-Donostia argazkia**

Ostadarreko atletismo sailak Behobia-Donostia lasterketan parte hartuko duten herritarren argazkia ateratzeko deialdia egiten du. Igandean 8:15etan, Eusko Treneko geltokiaren aurrean izango da.

# Albizuri Handi harri berezia bost aldiz altxatu du Urtzi Telleriak

Bigarren sailkatu zen Amezketako proba entzutetsuan Joseba Ostolazaren atzetik ■ Igandean, Euskal Herriko Harri Handien Txapelketan lehenengo aldiz 200 kiloko altxatzen saiatuko da

Jon ALTUNA

Urtzi Telleriak 80 kilorekin 165,5 kiloko Albizuri Handi harri berezia bost aldiz altxatu zuen azaroak 7an, Amezketan. Bigarren izan zen urtero ospatzen den proban, Joseba Ostolaza txapelkunaren atzetik. Honek zortzi aldiz altxatu zuen 1947. urtera arte altxatu gabe egon zen Albizuri Handi landu gabeko harria: heldulekurik gabekoa eta altxatzeko oso zaila.

Bere zailtasunarengatik da harri oso ezaguna, Albizuri Handi, harri-jasotzaileentzat erronka handia delako. Lehenengo aldiz Santos Iriarte *Errekarteko* azpeitiarrak altxatu omen zuen 1947ko azaroaren 30an. Aste batzuk lehenago hamar harri-jasotzailek egin zuten ahalegina, baina inork ez zuen lortu.

Urtziren asmoa, behintzat behin altxatzea zen eta bost aldiz altxatu zuen. Uste baino errazago eraman zuen harria bizkarrera. Hurrengo erronka, igandean, Euskal Herriko Harri Handien Txapelketa du eta 200 kiloko harria plazan lehenengo aldiz altxatzen saiatuko da.

**Zorionak, Urtzi, 81 kilorekin, 165,5eko harria altxatu, ikaragarria ezta?**

Bai, nire pisuaren doble eta lau kilo gehiagoko harria da.

**Espero zenuen lana zen ala uste baino hobeto aritu zinen?**

Egia esango dut. Gure asmoa, aurrena, bat jasotzekoa zen. Eta bat jasoz gero, beste pare bati heldu. Baina ez nuen uste horren erraz aterako nuenik.

**Gakoa beraz lehenengoa ondo altxatzea izan zen?**

Bai, uste baino errazago ateratu nuen belaunetara, gero pazientziatziaz ondo ekartzen nuen petxoaren kontra, besteek baino hobeto, eta bi kolporekin erraz dominatzen nuen.

**Hamar minutuan bost aldiz altxatu eta bigarren, izeta anaien aurretik. Ezustekoa, ezta?**

Bai, Izeta II-ari kentzea izan zen sorpresarik handiena. Bueno berdinketa izan zen. Guk laugarrena jaso genuenean, aitak esan zidan "seigarrena ere bai", osaba larritu zen, eta nik ere esan nion bat aseguratzeko hobe genuela, bat



Urtzi Telleria, 2008ko Euskararen Maratoian egindako erakustaldian.

ondo jaso jende aurrean, itxura ona emanez, bi juxtuan baino eta ondo ateratu zen.

**Kritikak oso onak jaso dituzu?**

Bai, bastante goian jarri naute.

**Nola hartu dituzu kritikok?**

Ondo, baina pentsatzen dut bestelakoak ere izango direla. Harri horrekin behin baino gehiagotan aritu naizela eta denetik adituko dut...

Egia esango dizuet. Nik egun horretan bakarrik ibili dut harri hori. Lehen uzten zuten entrenatzen harriarekin, baina 2007. urteko bilera batean (ni han nintzen) galarazi egin zen. Beraz aurreneko urtez parte hartzen genuenok batere entrenatu gabe ateratu gara.

**Lehenengo aldiz heldu zenien igandean harriari, beraz?**

Lehenengo aldiz, eta plazan, jende aurrean.

**Joseba Ostolaza txapelkunari berari baino laudorio gehiago egin dizkizute...**

Bai, amak grabatu zidan bideoa eta gaizki ibili zen Ostolaza, nahiko juxtu. Aita eta biok esan genion elkarri, zer pasatuko ote zen beste pare bat gehiago jaso banitu. Josebak sei jaso behar zituen txapela jantzeko eta nik uste oso nerbio aritu zela. Zortzi jaso behar balitu, igual ez zituen jasoko. Seigarrena jaso zuenean orduantxe lasaitu zen bera, eta beste bi altxaldiak lasaigo eman zituen.

**Zuk hurrengo urteetan marka hobetzeko esperantzarik izango duzu, noski?**

Bai ea hurrengoan hobetzea dagoen. Nire burua ikusi nuen bezala uste dut gehiago egitea badaukala. Orain, zenbat ez dakit. Gero ikusiko da.

**Zer prestatzen ari zara orain?**

Igandean honetan Euskal Herriko Harri Handien Txapelketa, 200 kiloko rectangularra, 175eko zilindroa, 150eko kubikoa eta 125eko bolarekin.

**Zer esperantza daukazu? Prestatuta al zaude?**

Txapelketa polit bat egitera noa, harri denekin txukun aritzera, 200 kiloko jende aurrean aurreneko aldiz jasotzera.

**Zure errekorra izango da hori?**

Bai, plazan jasotzen badut errekorra. Orain 185ean daukat. Handia izango litzateke, denboraldiari bukaera borobila emateko. Gero azaroaren 28an iaz hil zen Mendizabal aizkolariaren omenaldira ere 200 kiloko jasotzera joango naiz.

**Etxean irakasle eta prestatzaile onak dituzu ezta?**

Bai, aitarekin aritu naiz entrenatzen Euskal Herriko Txapelketarako. Amezketakoari ez diogu aparteko garrantzirik eman. Gutxi gorabehera, bai baterako eta bai besterako karga handiko harriak erabili behar nituen eta orduan, entrenamendu bat bestearentzat ondo etorri zait. •

Egunero

**Erakusketa**

Metamorfosiaz, Jasone Irigoien margo erakusketa. Jalgi kafe-antzokian, egun osoan.

Ostirala, 12

**Kontzertua**

GORA GORA KIDS taldearen emanaldia, (Garage, Rock). Jalgi kafe-antzokian, 23:00etan.



**Kontzertua**

BELARMANEK (dena beltza) kontzertua eskainiko du. Ilargi tabernan, 23:30ean.

Larunbata, 13

**Antzerkia**

AKAZIAREN JOKOA, antzerkia eta dantza ikuskizuna Abstracto-esfera antzerki taldearen eskutik. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:30ean, EUSKARAZ eta 20:30ean GAZTELANIAZ.

Igandea, 14

**Zinea**

COMO ENTRENAR A TÚ DRAGON haurrentzako filma. Sarrea 3,15 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 17:00etan. GAZTELANIAZ.

Astearte, 16

**Hitzaldia**

GARAPEN PSIKOAFEKTIBOA. HAURREN EMOZIOA ETA PENTSAMEN-DUARI buruzko hitzaldia



Jazz-Funk eta Bluesa kulturetxeko kafetegian gaur

THE BOOGALORDS taldearen emanaldia, Xpression! elkarte eta Lasarte-Oriako udaleko Gazteria Sailak sinatutako hitzarmenean barruan.

Lau lagunek osatzen dute taldea, beraietako bat herrikoa da gainera: Santi Artola (gitarra), Beatri Hurtado lasarteoriatarra (pianoa eta teklatura), Eusebio Soria (baxu elektriko), Ixak Oiartzabal (bateria)

OSTIRALA 12, 20:00ETAN  
KULTURETXEKO KAFETEGIAN

eskainiko du Helena San Pedrok Udalaren Sanitateko Departamentuak antolatuta. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etan, GAZTELANIAZ.

Asteazkena, 17

**Ipuin-kontalaria**

IPUINAREN ORDUA Koruko Zurutza eskutik 6, 7 eta 8 urteko haurrentzat. Urteak errespetatu egin behar dira eta haurrak bakarrik egongo dira. Behin ipuina hasi eta gero, ezin da gelatik atera. Kulturetxeko

haurren liburutegian, 18:00etatik aurrera, EUSKARAZ

**Diaporama**

COSTA RICA ETA NIKARAGUARI buruzko diaporama eskainiko dute Mikel Zinkunegik eta Jose Luis Garciak. Jalgi kafe-antzokian, 21:30etan. EUSKARAZ

Ostirala, 19

**Kontzertua**

ORIA HIRUKOTEAREN emanaldia Danok Kidek antolatzen duen VI. Topaketa Musikalen

barruan. Brigitarren komentua, 19:30ean

**Dantza**

DANTZARIA NAIZ emanaldia eskainiko du Verdini taldeak Lasarte-Oria Dantzan ekimenaren barruan. Sarrera, 6 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etan.

Larunbata, 20

**Antzerkia**

EINSTEIN haurrentzako antzerkia Ados antzerki taldearen eskutik. Sarrera, 3,15 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etan, EUSKARAZ.



Igandea, 21

**Zinea**

COMO PERROS Y GATOS haurrentzako filma. Sarrea 3,15 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 17:00etan, GAZTELANIAZ

Astelehena, 22

**Kalejira**

MUSIKA ESKOLAREN KALEJIRA Santa Zeziliaren eguna dela eta. Herriko kaleetan zehar, 18:30ean.

Asteazkena, 24

**Diaporama**

GARAZI, GASTEIZ ETA BARDEETARA eginiko irteerei buruzko diaporama eskainiko du Oinatz taldeak. Jalgi kafe-antzokian,

**Oharrak**

**Galdutako gauzak**

Udaltzainen bulegoan gauza hauek daude jasota, diruzorroa, urrezko katea, zilarrrezko zintzilikarioa, urrezko aliantza Jose Luis grabaketa-rekin, hiru bizikleta, puntuzko txaketa eta erloju bat.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte. Horietakoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona guztiei eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

**Oharrak jartzeko:**

Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 366858  
txintxarri@txintxarri.info

**Dagokionari**

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkaria. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943 366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz mezua txintxarri@txintxarri.info helbidera bidaliaz edo bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

**Eskutitzak**

**Azkenean badaukagu berdinasun-plangintza**

2010eko azaroaren 4an Michelingo Enpresa Batzordea (EB) eta Zuzendaritzaren arteko bileran, honek enpresako (emakumezko eta gizonetzkoen arteko) Berdintasun Plangintza aurkeztu zion EBri.

Enpresak plangintza sortu beharra ikusi du (hiru urtez atzeratu eta gero, indarrean dagoen hitzarmena sinatu zenetik), bai martxoaren 22ko 3/2007 Legearengatik, bai egungo Enpresa Hitzarmenarengatik. Honetan jaso ziren zenbait puntu, besteak beste, emakumezko eta gizonetzkoen arteko aukera-berdintasuna, genero bortizkeria, eta hizkuntza sexista.

CCOO, ELA, UGT, ESK eta CSI sindikatuek bultzatu eta sinatu dute Berdintasun Plangintza hau. LAB abstentitu egin da eta ez du sinatu nahi izan. Hilabeteko epean Berdintasun Batzorde Paritarioa sortuko da, enpresaren zuzendaritzako eta Enpresa Batzordeko ordezkariak osatuta, hasierako dokumentua hobetzeko eta zaintzeko lana bere gain hartu dezan.

ESK sindikatuak langile guztiei eta bereziki emakumezkoiei deia luzatu die borroka honetan parte dezaten, eta guztion artean, emakumezko eta gizonetzkoen arteko erabateko berdintasuna egi bilakatzeko lortu dezagun.

ERREDAKZIOAN ITZULIA

**ESK sindikatua**

**G-O-I-E-N-A-  
Letraz letra**

A arrasto aitzindaria, akuilua, asmatzea, asmo antolatua, arnagunea, argigarria

B berritzailea, bihotza bezainbat burua, bisagra, blogaria, bilgunea, burugogorra, baikorra

D desberdina, diseinuan dotorea, dinamikoa,

E egin eta eragin, euskaratik eta euskaraz, euskaldunontzat, elkarlana, erreferentea, eredu, egoskorra, erakargarria, esperantza, etorkizuna

F foroa, faroa, fokoa, festa,

G guztiona, gurea, guztiontzat, gerokoentzat, gunea, gaztetasunaren grina, glokala

H harremanetan hurbila,

hegemonikoa, harrotasuna, I irmoa, irekia, informazio iturria, inbertsioa, ilusioa, izatea, izaera indartsua, iraunkortasuna,

J jakintza, jazotakoa jaso, jostun jardunean, jarioa, jolasa, jarraidura

K kolaborazioa, koloretua, kompetentzia, koordinazioa, kalekoa, L lorpena, loraldian, lotura,

M miresgarria, milurtekoan modernoa, mundurakoa, merezitakoa, merituzkoa, N nortasuna, neutraltasun neurtua, norabidea, nerabea, nirea

O opari oparoa, orijinala, ongaria, ondorengoentzako ortzimuga, P pozgarria, pozkidea, pentsu pentsatua, proiektu profesionala, prozesua, parte-

hartzailea, pixkanaka, S sustatzailea, sentimentua, sentimendu sortzailea, sarea, soroa, saria, serioa,

T teknologia, topagunea, tokikoa, tentsioa U utopiaren uzta, uanean unekoa,

Z zabala, zirikatzailea, zailtasun zulatzailea, zurekin, zuretako, zuhurra,

Utopiaren zati bat gerturatu duzuelako, urte askoan Goienako lagunei eta eskerri asko zaretenak zarelako.

**Karmen Irizar**

Topaguneko lehendakaria

**Jasone Mendizabal**

Topaguneko zuzendaria

Goienaren 10. urteurrean

Iñigo Suberbiola Patinatzailea

# “Inbidiagatik sartu nintzen patinajea”

■ Frantziako Le Mans hirian jokatzeko den 24 orduko patinaketa proban ibili zen lasarteoriatarra  
 ■ Behobia-Donostian parte hartuko du patinatzailei aukera ireki zaien lehenengo urte honetan

Patinajea ez da kirol hedatua, eta horregatik nahiko ezezaguna dugu. Teknika behar da eta horretarako entrenatu beharra dago. Gure inguruan badira txapelketa ugari eta baita talde profesionalak ere. Lasarte-Orian ere bai, badira patinajearen munduan sartu diren herritarrik. Horieta bat Iñigo Suberbiola dugu. Ez darama urte asko kirol honetan, baina pixkanaka kirol honek ezkutuan daukan barneko mundua ezagutzen joan da, eta orain kontent dabil txapelketa ezberdinetan: Le Mans, Belinen... Patinajeari esker Europa ezagutzen dabil. Aurten Behobia-Donostian lehenengo aldiz aterako dira patinatzaileak, eta hor ere ikusi ahalko dugu Iñigo Suberbiola herritarra.

## TXINTXARRI

Jendea patinatzen ikustean inbidia sortarazi, eta horrek eragin zuen Iñigo Suberbiola lasarteoriatarra patinajearen munduan sartzeraz. Probatu, gustatu, eta orain talde batean dihardu, Donostiroller-en hain zuzen ere. Taldearen informazioa [www.donostiroller.com](http://www.donostiroller.com) web atarian eskuratu daiteke. Gu Suberbiolarekin bildu gara kirol honetan egin duen ibilbidea ezagutzeko.

**Nolatan hasi zinen patinajea?**  
 Inbidiagatik sartu nintzen, jendea patinatzen ikusten nuen eta pila bat gustatzen zitzaidan. Lotsa galdu, patinak erosi, galtza batzuk apurtu... eta nire kabuz hasi nintzen ikasten, kalean. Gero anairekin joaten nintzen, eta elkar animatzen genuen. Gozatzen hasi nintzen, eta kalean, Donostian, patinajea ibiltzen zen jende gehiago ezagutu genuen. Elkartu eta orain dela hiruzpalau urte Donostiroller sortu genuen.

### Zer da ba Donostiroller?

Foro bat izan da, guztientzat irekia. Gauzak idatzi, elkar konpartitu, argazkiak partekatu, karrerak non diren jakinarazi... eta hilabete honetan asoziazio bihurtu da. Hori esker, dauden karrera ezberdinek ezagutzen hasi ginen orain dela hiru urte.

Parte hartu genuen lehenengo Landatako travesia izan zen: 200 kilometro aste-buru batean, larunbata eta igandean. Oso ondo antolatutako proba da. Etapak egiten da eta 20km-ko etenaldi bat dauka, jateko, edateko... Lotarako kanping-a hartzen dute eta nekatuta sentitzen bazara edozein momentutan anbu-

lantzira igo eta helmugara eramaten zaituzte.

### Berria izango zen dena zuzentzat, ezta?

Hor ikusi genuen lehendabiziko aldiz patin zaharrek jendea, eta gu baino azkarrago ibiltzen zirela. Beste itxura bat zeukatela patinatzen, beste era bat. Eta horrek beste modu batean entrenatzeko bidea ireki zigun.

### Zein bide?

Profesional ibilitako Nicolas Alonso, patinajearen teknikak erakusten hasi zitzaigun, berak entrenatzen gintuen. Gure irakaslea aurreko hila-betean bigarren geratu zen Espainia mailan 30 urtetik gorakoetan.

Patin berriak erosi gintuen eta orduan hasi ginen karrera txikietan parte hartzen; Lourdesen, Iruñean...

### Zertan datza entrenamenduak?

Orain dela gutxi Zubietako bidean hasi gara, eta bestela ere, igandetan Portuetxe inguruan ibiltzen gara. Asfalto dezente eta trafiko gutxi duen leua behar dugu. Ekipo profesionalek pista partikularrak, itxiak dituzte, baina guk ez.

Pasa den urtean Nicolasekin hasi ginenean, orain bota egin duten frontoi bat alokatzen hasi ginen Trintxerpen; Giratzen, indarra neurtzen, kurbak aprobeztatzen... erakusten hasi zitzaigun astean behin.

Orain Nicolas-ek eskola bat ireki du, saskibaloia, futbola eta beste eskolaz kanpoko jarduerak bezala, patinajea ere sartzeko.

### Eta ikasitakoa aprobeztatuz, aurten Le Mans-era?

Esperientzia berria izan da niretzako Le Mans-eko 24 orduetan parte hartzea. Nire-



Informazio gehiago, [www.donostiroller.com](http://www.donostiroller.com) web atarian.

Zubieta inguruan entrenatzen dute Donostiroller taldeko patinatzaileak.



Arg.: [www.Roller91.fr](http://www.Roller91.fr) / [www.Frad-DAVI.fr](http://www.Frad-DAVI.fr)

kin batera beste lasarteoriatar bat egon zen.

### Zertan datza probak?

Ekipoka korritzen den proba bat da, erreleboka, eta 24 orduan ez da gelditzen. 3.000 pertsonak, 600 ekipo inguruk, parte hartzen du. Momentuan, elkarrekin, 600 patinatzaile daude parte hartzen, eta beste 600 erreleboa itxoiten. Oso ondo antolatutako proba da.

Ibilbidea nahiko erraza da oro har, autoentzako zabalera dauka, salto onak... eta horiguretako garrantzitsua da. Gogorena hasieran da, abiatu eta kilometro erdiko igoera bat. Autoarekin ez da nabaritzen, baina guk bai. Zirkuito goxoa da.

**Gauze ere patinatzen al duzue?**  
 Bai, bai. Ni gaueko 4etan lesionatu nintzen.

**Pena handia hartuko zenuen**  
 Bai. Gainera proba sanpedroekin batera egin zen eta dudatan ibili nintzen joan ala ez joan. Joatea erabaki eta lesionatu! Oraindik hanketako minarekin nabil gainera.

### Eta nola bukatu zenuten?

Ba egia esan oso ondo. Parte hartutako 600 ekipoetatik 27.ak geratu gara.

Postu onean eta gainera oso ondo pasa genuen. Patinatzen duzu pixka bat, gero deskantsatu eta erreleboa tokatzen zaizunean, berriro martxari ekiten diozu.

### Aurten Behobia-Donostian parte hartuko duzue, ezta?

Donostiroller taldekoak bost urtez borrokan ibili eta gero, azkenean aurten patinatzaileak maratoi erdiko proba honetan egongo gara.

125 patinatzaile izango gara orotara, kopurua mugatu egin bait dute funtzionamendua ikusteko.

Gurpildun aukien ondoren, eta korrikalarien aurretik aterako gara.

### Inbidiagatik sartu eta mundu honetan geratu zara...

Kirol honek harrapatu egiten zaitu. Gainera, egunero zerbait ikasten duzu. Eta probetan parte hartzen askoz gehiago. Kirol polita da. •